

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Resu Abasolo Gallastegi

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(1958)*

Aurkibidea



Biografia



Areantzako Etxebarri baserrian jaioa, kalean bizi da aspalditik. Koruetako eskolan ibili zen umetan. 1979tik Kurtzebarri ikastetxean ibili zen irakasle, 31 urtean, eta azken urteetan Gasteizen egin du lana, Hezkuntza Ikuskaritzan. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, [Julen anaia](#)rekin batera. Hitanoa etxean jaso zuten eta elkarrekin hika egiteko ohitura dute.

Zintak

ARE-084

- **Proiektua:** Aretxabaletan hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-03-05
- **Iraupena:** 113 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Hika norekin

- **Erref:** ARE-084/002
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:00:48. **Bukatu:** 00:03:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Anai-arrebekin hika egin izan du, anai gazteenarekin izan ezik. Emakumeekin, arrebekin bakarrik egiten duela dio. Gurasoek zuka egin izan diotela uste du, baina amak aginduetarako erabiltzen zuela gogoratzen dute.

2. Hika norekin

- **Erref:** ARE-084/008
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:06:42. **Bukatu:** 00:08:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Ahizpen artean hika egin izan dute. Anaia gazteari ez diote egin izan. Lehenagoko baserri giroko lagunekin hika egiten du. Hasierako lankideekin hika egiten jarraitzen du. Geroko lagun eta lankideekin zuka egin izan du.

3. Seme-alabei ezin hika egin

- **Erref:** ARE-084/009
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:08:39. **Bukatu:** 00:10:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Seme-alabei hika egitea ez zaio irteten eta askotan leporatzen diote erakutsi ez izana.

4. Hika baserritarrekin lotuta

- **Erref:** ARE-084/010
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:10:08. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Askotan hika baserriarekin lotu izan dela dio Resuk.

5. Eskolan erdaraz egin behar; euskara gaizki ikusita

- **Erref:** ARE-084/016
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:16:28. **Bukatu:** 00:19:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Eskolan irakasle erdaldunak eta euskararen kontrakoak izan zituzten. Resuk izan zuen irakasle euskalduna hasieran; ikasi erdaraz egin behar zutela esaten zien, baina harremana euskaraz zela dio. Almenen euskaraz egitea despektiboa zela dio Resuk eta erdaraz ondo egiten saiatzen zirela.

6. Irakasle euskaltzalea gogoan

- **Erref:** ARE-084/018
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:23:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Julenek gogoan du gelako denei euskarazko izena jarri zien irakaslea. Bera, izatez, Julian zen, baina geroztik Julen izan da. Resuri hika egiten zion irakasle hark.

7. Hika egitearren, haserre

- **Erref:** ARE-084/020
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:24:59. **Bukatu:** 00:26:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika zakarra denaren iritzia sumatu izan du Resuk, eta oraindik ere badagoela dio. Hika egitearren haserre egin izan diotenik ezagutzen dute.

8. Eskolako lagun asko euskaldunak zirela gerora jabetu

- **Erref:** ARE-084/023
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:30:33. **Bukatu:** 00:33:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Kaleko lagunak egindakoan, gaztetan, erdaraz hasi ziren Resu eta. Julenek euskaraz egin izana du gogoan, baina zuka. Gero jabetu ziren eskolako lagun asko euskaldunak zirela.

9. Hitanoaren egoera herrian

- **Erref:** ARE-084/028
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:41:02. **Bukatu:** 00:44:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Herrian hika ez dagoela egoera onean eta galtzen joango dela uste dute. Gazte batzuk gogotsu ikusten dituzte eta, izatekotan, halako taldetxoetan dute itxaropena.

10. Hitanoa nola indartu

- **Erref:** ARE-084/030
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:45:30. **Bukatu:** 00:46:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Kontsumitzen den kulturarengatik, oso zail ikusten du Resuk euskaraz egitea. Hika berpiztekotan, gazteen artean piztuko dela uste du Julenek. Arlo zehatz bati esker gorakada etor litekeela uste du Resuk.

11. Hitanoa, euskara ikasteko karga ala pizgarri?

- **Erref:** ARE-084/031
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:46:34. **Bukatu:** 00:49:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoari baino, euskarari bultzada ematea ikusten du Resuk garrantzitsuagoa. Ez dakitenentzat hika karga bat izan daitekeela uste du. Julenek uste du hikak lagundu dezakeela euskarari eusten.

12. Hizkuntza biziberritzeko, talde kontzientzia

- **Erref:** ARE-084/040
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 01:00:48. **Bukatu:** 01:03:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskara, hika, euskalkia mantentzeko taldearen kontzientziaren beharra dagoela uste du eta orain zail dagoela dio.

13. Harremanen kontuan aldaketa oso handia

- **Erref:** ARE-084/041
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:03:35. **Bukatu:** 01:04:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Harremanen kontuan aldaketa oso handia bizi izan dutela uste dute.

14. Atzerritarrei euskaraz erakustea erronka handia eskolan

- **Erref:** ARE-084/044
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 01:11:33. **Bukatu:** 01:14:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Berari tokatu zaion erronka handiena atzerritarrei euskaraz irakastearena izan dela dio Resuk. Julenek uste du lana desprestigiatu egin dela.

15. Emakumeen bizimodua lehen eta orain

- **Erref:** ARE-084/046
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 01:17:31. **Bukatu:** 01:20:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeen bizimodua hobetzeko asko falta dela uste du Resuk. Oraindik ere emakumeek gizonek baino ardura gehiago dituztela uste du.

16. Emakumeek lanaz aparteko ardura asko

- **Erref:** ARE-084/048
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:20:36. **Bukatu:** 01:22:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Amarekiko goraipamena egiten du Julenek, zenbat lan batera egiten zituen gogoratuz. Resuk ikusi du emakumeek lanaz aparteko karga handia daramatela etxean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com